Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO Nº
ALMIRANTE OA KALEA 5	38
Referencia catastral 7192133	

GRADO DE PROTECCION

BASICO


Edificación de plata trapezoidal con sección de planta baja y dos plantas altas.
La puerta principal en arco de medio punto.
Distribución irregular de los huecos de plantas altas.
Planta baja en piedra sillar, el resto se encuentra raseado y pintado.

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
ALMIRANTE OA KALEA 5	38
Katastro-erreferentzia: 7192133	

BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Oinplano trapezoidaleko eraikina. Beheko solairua eta goiko bi solairu ditu.
Ate nagusiak erdi-puntuko arkua du.
Goiko solairuetan baoak irregularki banatuta daude.
Beheko solairua harlanduzkoa da, eta gainerakoak zarpiatuak eta pintatuak.



- 39.- Almirante Oa kalea 7.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO N°
ALMIRANTE OA KALEA 7	39
Referencia catastral 7192134	

GRADO DE PROTECCION

BASICO

Casa a dos calles entre medianeras.
De planta trapezoidal con particulares soluciones en el alero y muros medianeros debido a la forma de la planta.
Arco de medio punto en la puerta de entrada situada en el chaflán, con inscripción en la clave.
Ventana gótica en el bajo orientado hacia el Norte.
Reformada en los huecos de las plantas altas.
Planta baja en sillería vista, el resto raseado y pintado.

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
ALMIRANTE OA KALEA 7	39
Katastro-erreferentzia: 7192134	

BABES-MAILA

OINARRIZKOA



Bi kaletara ematen duen etxea, meheline artekoa.
Oinplano trapezoidala du, eta soluzio bereziak teilatu-hegalean eta mehelin-hormetan, oinplanoaren forma dela eta.
Erdi-puntuko arkua alakan dagoen sarrerako atean, giltzarrian inskripzioa duela.
Leiho gotikoa beheko solairuan, iparraldera begira.
Goiko solairuetako baoak eraberrituta ditu.
Beheko solairua ageriko harlanduzkoa da, gainerakoa zarpiatua eta pintatua.

- 40.- Almirante Oa kalea 10.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO Nº
ALMIRANTE OA KALEA 10	40
Referencia catastral 7192140	

GRADO DE PROTECCION

BASICO

Casa en esquina, de planta trapezoidal.
Reformada.
Conserva la piedra sillar de planta baja, esquinas y fachada lateral.
En planta baja, puerta con arco de medio punto con dovelas e inscripción en la clave.
Ventanas conopiales, una doble a Almirante Oa kalea y una doble y dos sencillas en Antziola kalea.

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
ALMIRANTE OA KALEA 10	40
Katastro-erreferentzia: 7192140	

BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Oinplano trapezoidaleko etxea, izkinan kokatua.
Berritua.
Beheko solairuan, izkinetan eta alboko fatxadan harlandua mantentzen du.
Beheko solairuan erdi-puntuko arkuko atea du, dobelez osatua eta inskripzio batekin giltzarrian.
Leiho konopialak ditu, bat bikoitza Almirante Oa kalera eta bi bakun Antziola kalera.



- 41.- Almirante Oa kalea 12.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO Nº
ALMIRANTE OA KALEA 12	41
Referencia catastral 7192108	

GRADO DE PROTECCION

BASICO


Edificación entre medianeras, de planta trapezoidal.
Desarrollada en planta baja y dos plantas altas.
Una de las puertas de planta baja con arco de medio punto, en piedra sillar.
Cuenta con cortafuegos en una de sus medianeras, en piedra sillar vista.
Disposición de huecos ligeramente irregular.
La fachada se encuentra raseada y pintada.

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
ALMIRANTE OA KALEA 12	41
Katastro-erreferentzia: 7192108	

BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Mehelin arteko eraikina, oinplano trapezoidalekoa.
Beheko solairua eta goiko bi solairu ditu.
Beheko ateetako batek erdi-puntukoa arkua du, harlanduzkoa.
Beheko solairuan eta goiko bi solairu ditu.
Mehelinetako batean suhesia dauka, harlandua agerian duena.
Baoen kokapena pixka bat irregularra da.
Fatxada zarpiatua eta pintatua.



- 42.- Almirante Oa kalea 14.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO Nº
ALMIRANTE OA KALEA 14	42
Referencia catastral 7192138	

GRADO DE PROTECCION

BASICO

Edificación entre medianeras, de planta trapezoidal, desarrollada en planta baja, dos plantas altas y bajocubierta.
La disposición de huecos de planta baja no se corresponde con la de las plantas altas.
Piedra sillar vista en planta baja. El resto de las plantas raseadas y pintadas.

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
ALMIRANTE OA KALEA 14	42
Katastro-erreferentzia: 7192138	



BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Mehelinen arteko eraikina, oinplano trapezoidalekoa. Beheko solairua, goiko bi solairu eta teilatupeko solairu bat ditu.
Beheko solairuko baoen kokapena ez dator bat beste solairuetakoekin.
Beheko solairua ageriko harlanduzkoa da, eta gainerakoak zarpiatuak eta pintatuak.

- 43.- Almirante Oa kalea 16.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.




CALLE Y NUMERO ALMIRANTE OA KALEA 16	PLANO Nº 43
Referencia catastral 7192137	

GRADO DE PROTECCION

BASICO

Edificación entre medianeras, de planta sensiblemente rectangular.
Desarrollada en planta baja y tres plantas altas.
Distribución ordenada y lineal de los huecos de todas las plantas.
La fachada se encuentra raseada y pintada.



KALEA ETA ZENBAKIA ALMIRANTE OA KALEA 16	PLANO ZK. 43
Katastro-erreferentzia: 7192137	

BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Mehelinen arteko eraikina, oinplanoa laukizuzen samarra duena.
Beheko solairua eta goiko hiru solairu ditu.
Baoak ordenatuta eta lerrokatuta daude solairu guztietan.
Fatxada zarpiatua eta pintatua.

- 44.- Almirante Oa kalea 18.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO Nº
ALMIRANTE OA KALEA 18	44
Referencia catastral 7192136	

GRADO DE PROTECCION

BASICO

Edificación en esquina, de planta irregular. Desarrollada en planta baja, tres plantas altas y bajocubierta.

En la fachada a Almirante Oa kalea, presenta arco de medio punto con inscripción en la clave, fachada de sillar visto en plata baja y primera.

En la fachada principal se sacaron miradores de obra que distorsionan totalmente el diseño de la fachada. Esta fachada se encuentra en su totalidad raseada y pintada.

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
ALMIRANTE OA KALEA 18	44
Katastro-erreferentzia: 7192136	



BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Oinplano irregularreko eraikina, izkinan kokatua. Beheko solairua, hiru solairu eta teilatupea ditu.

Almirante Oa kalera ematen duen fatxadaren erdi-puntuko arku bat dauka, inskripzio batekin giltzarrian. Ageriko harlandua du beheko solairuan eta lehenengo solairuan.

Fatxada nagusian obrako behatokiak egin zituzten kanporantz, zeinak fatxadaren diseinua guztiz aldatu duten. Fatxada hori zarpiatua eta pintatua dago, bere osotasunean.

- 45.- Aritzaga kalea 1.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO Nº
ARITZAGA KALEA 1	45
Referencia catastral 7092142	

GRADO DE PROTECCION

BASICO

Edificación entre medianeras, de planta trapezoidal. Desarrollada en planta baja y tres plantas altas.

Medianeros de piedra sillar, con vuelos en cortafuegos.

La planta baja ha sufrido modificación de los huecos, presentando, así mismo, una escalera exterior, cuya factura no responde a un diseño propio del Casco Histórico.

La disposición de huecos en las plantas altas responde a un esquema lineal ordenado. Destaca la herrería del balcón corrido de planta segunda, de curioso diseño.

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
ARITZAGA KALEA 1	45
Katastro-erreferentzia: 7092142	



BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Oinplano trapezoidaleko eraikina mehelin artean. Beheko solairua eta goiko hiru solairu ditu.

Mehelinak harlanduzkoak dira, hegaldunak suhesietan.

Beheko solairuko baoak aldatuta daude, eta kanpoko eskailera bat ere jarri zaio. Eskailera horren egiturak ez du jarraitzen Herrigune Historikoko berezko diseinua.

Goiko solairuetako baoen kokapenak lerro ordenatuko eskemari jarraitzen dio. Bigarren solairuko balkoi jarraituaren errementaritzak diseinu berezia dauka.

- 46.- Aritzaga kalea 15.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO Nº
ARITZAGA KALEA 15	46
Referencia catastral 7192014	

GRADO DE PROTECCION

BASICO

También llamada casa Azurza
Forma un conjunto con el Nº 17.
Casa neoclásica del siglo XVIII.
Consta de planta baja, tres plantas altas y una cuarta de escasa altura.
Huecos alineados, manteniendo un ritmo de posición. En planta segunda, balcón corrido.
Uno de los huecos de planta baja ha sido modificado.
Piedra sillar en planta baja y medianeras.

IDENTIFIKAZIOA

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
ARITZAGA KALEA 15	46
Katastro-erreferentzia: 7192014	

BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Azurza etxea ere esaten zaio.
Multzo bat osatzen du 17. zenbakiko etxearekin.
XVIII. mendeko etxe neoklasikoa.
Beheko solairua, goiko hiru solairu eta altuera eskaseko teilatupeko solairu bat ditu.
Baoak lerrokatuta ditu, kokapen-erritmo bati jarraituz. Bigarren solairuan balkoi jarraitua du.
Beheko solairuko baoetako bat aldatua izan da.
Harlandua du beheko solairuan eta mehelinetan.



- 47.- Aritzaga kalea 17.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	HOJA Nº
ARITZAGA KALEA 17	47
Referencia catastral 7192010	

GRADO DE PROTECCION

BASICO

También llamada casa Azurza
Forma conjunto con el Nº 15.
Casa neoclásica del siglo XVIII.
Consta de planta baja, tres plantas altas y una cuarta de escasa altura.
Huecos alineados, manteniendo un ritmo de posición. En planta segunda, balcón corrido.
Piedra sillar en planta baja y medianeras.


IDENTIFIKAZIOA

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
ARITZAGA KALEA 17	47
Katastro-erreferentzia: 7192010	

BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Azurza etxea ere esaten zaio.
Multzo bat osatzen du 17. zenbakiko etxearekin.
XVIII. mendeko etxe neoklasikoa.
Beheko solairua, goiko hiru solairu eta altuera eskaseko teilatupeko solairu bat ditu.
Baoak lerrokatuta ditu, kokapen-erritmo bati jarraituz. Bigarren solairuan balkoi jarraitua du.
Beheko solairuko baoetako bat aldatua izan da.
Harlandua du beheko solairuan eta mehelinetan.



48.- Antxiola kalea 2.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO Nº
ANTXIOLA KALEA 2	48
Referencia catastral	

GRADO DE PROTECCION

BASICO


Edificación en esquina, de planta trapezoidal, desarrollada en planta baja y dos plantas altas.

En Antxiola kalea presenta puerta con arco de medio punto.

Toda la fachada se encuentra raseada y pintada. En Almirante Oa kalea, en la planta baja, se distinguen los sillares de piedra.

La edificación se encuentra en muy mal estado, en la actualidad esta vallada.

KALEA ETA ZENBAKIA		PLANO ZK.
ANTXIOLA KALEA 2		48
ETXALDEA	PARTZELA	KATASTRO
D	13	ERREFERENTZI
		A
		1314190



BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Izkinako eraikina, oinplano trapezoidalekoa, beheko solairuak eta goiko bi solairuk osatua. Antzokia kalean erdi-puntuko arkuko ate bat du.

Fatxada guztiz zarpiatua eta pintatua du. Almirante Oa kaleko beheko solairuan harlandua hautematen da.

Eraikina oso egoera txarrean dago, eta egun hesituta dago.

- 49.- San Nikolas kalea 3.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	HOJA Nº
SAN NIKOLAS KALEA 3	49
Referencia catastral 7092143	

GRADO DE PROTECCION

BASICO


Casa entre medianeras, de planta rectangular. Planta baja en piedra vista, medianeros cortafuegos con vuelos progresivos en cada planta. El vuelo del alero y balcón corrido de planta tercera con solivos tallados

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
SAN NIKOLAS KALEA 3	49
Katastro-erreferentzia: 7092143	

BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Mehelin arteko eraikina, oinplano laukizuzenekoa. Beheko solairuan agerian du harria, eta mehelinetako suhesiek aurrerantz egiten dute solairu bakoitzean. Hegaleko hegalkina eta hirugarren solairuko balkoi jarraitua solibo landuez eginda daude.



- 50.- San Nikolas kalea 7.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO Nº
SAN NIKOLAS KALEA 7	50
Referencia catastral 7092146	

GRADO DE PROTECCION

BASICO


Casa típica de pescadores, en esquina, de planta rectangular.
Medianeros provistos de cortafuegos con vuelos sucesivos en las plantas.
Estructura de fachada con entramado de madera.
Cubierta con sobrealto a modo de palomera.
Ha sido reformada.

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
SAN NIKOLAS KALEA 7	50
Katastro-erreferentzia: 7092146	

BABES-MAILA

OINARRZIKOA

Arrantzaleen etxe tipikoa, izkinan kokatua eta oinplano laukizuzenekoa.
Mehelinek suhesiak dituzte, solairu bakoitzean gero eta hegal handiagoa dutenak.
Fatxadak zurezko bilbadura du.
Estalkian goragune bat du, usategi moduan.
Eraberrituta dago.



- 51.- San Nikolas kalea 15.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.




CALLE Y NUMERO	HOJA Nº
SAN NIKOLAS KALEA 15	51
Referencia catastral 7092183	

GRADO DE PROTECCION

BASICO

Edificación de planta rectangular, en esquina. Desarrollada en planta baja y tres plantas altas. Presenta una disposición ordenada de huecos de fachada. Piedra sillar vista en planta baja y esquinas. El resto de la fachada raseada y pintada.

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
SAN NIKOLAS KALEA 15	51
Katastro-erreferentzia: 7092183	



BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Izkinan kokatutako eraikina, oinplano laukizuzenekoa. Beheko solairua eta goiko hiru solairu ditu. Baoak ordenatuta antolatuta daude fatxadaren. Ageriko harlandua beheko solairuan eta izkinetan. Fatxadaren gainontzekoa zarpiatua eta pintatua.

- 52.- San Nikolas kalea 17.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO Nº
SAN NIKOLAS KALEA 17	52
Referencia catastral 7092173	

GRADO DE PROTECCION

BASICO

Edificación de planta rectangular, entre medianeras. Desarrollada en planta baja y tres plantas altas.

Fachada de piedra raseada y pintada. Se observan los sillares de la planta baja.

Disposición ordenada de huecos de las plantas altas.

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
SAN NIKOLAS KALEA 17	52
Katastro-erreferentzia: 7092173	

BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Oinplano laukizuzeneko eraikina mehelinean artean. Beheko solairua eta goiko hiru solairu ditu.

Harrizko fatxada, zarpiatua eta pintatua. Beheko solairuan harlandua ikusten da.

Goiko solairuetan, baoen kokapen ordenatua du.



- 53.- San Nikolas kalea 19.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO Nº
SAN NIKOLAS KALEA 19	53
Referencia catastral 7092175	

GRADO DE PROTECCION

BASICO

También llamada Salatxo.
Casa en esquina, posee un pasadizo con escalera y arco de medio punto.
Actualmente se encuentra bastante adulterada debido a los balcones que han sacado y la sobreelevación de la cubierta.
Mantiene ventanas góticas ageminadas en planta primera.

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
SAN NIKOLAS KALEA 19	53
Katastro-erreferentzia: 7092175	

BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Salatxo ere esaten zaio.
Izkinan dagoen eraikina, pasabidea eta erdi-puntuko arkua dituen eskailera bat du.
Gaur egun nahiko itxuraldatua dago, balkoiak atera baitizkiote eta teilatua igo egin baitute.
Leiho gotiko bikiak mantentzen ditu lehenengo solairuan.



- 54.- Herriko Plaza 3.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO HERRIKO PLAZA 3	PLANO Nº 54
Referencia catastral 7092145	

GRADO DE PROTECCION

BASICO


Edificación en esquina con dos medianeras, de planta rectangular.
Reformada y ampliada.
Planta baja y primera de mampostería y sillería en esquinas y bordes de huecos.
Planta segunda con entramado de madera.

KALEA ETA ZENBAKIA HERRIKO PLAZA 3	PLANO ZK. 54
Katastro-erreferentzia: 7092145	

BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Izkinan kokatutako etxea, bi mehelin ditu, eta oinplano laukizuzena.
Eraberritu eta handitu egin dute.
Beheko solairua eta lehenengoa harlangaitzezkoa da, eta harlandua ditu izkinetan eta baoen ertzetan.
Bigarren solairuak zurezko bilbadura du.



- 55.- Herriko Plaza 5.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO	PLANO Nº
HERRIKO PLAZA 5	55
Referencia catastral 7092174	

GRADO DE PROTECCION

BASICO

Edificación exenta de planta cuadrada. Desarrollada en planta baja más tres plantas altas y bajocubierta.

Fachadas en piedra raseadas con esquinas de sillar vistas, igual que el recerco de ventanas y balcones.

Presenta huecos alineados y ordenados.

Las obras deberán adecuarse a las previsiones establecidas en las disposiciones legales vigentes en materia de Costas

IDENTIFIKAZIOA

KALEA ETA ZENBAKIA	PLANO ZK.
HERRIKO PLAZA 5	55
Katastro-erreferentzia: 7092174	

BABES-MAILA

OINARRIZKOA

Oinplano laukizuzeneko eraikin exentua. Beheko solairua, hiru solairu eta teilatupea ditu.

Harrizko fatxadak ditu, zarpiatuak, eta ageriko harlandua izkinetan eta leihoen eta balkoien ertzetan.

Baoak lerrokatuta eta ordenatuta ditu.

Kostaldeein arloan indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritako aurreikuspenetara egokitu beharko dira obrak.



- 56.- Endaia Plaza 3.
Orioko Herrigune Historikoko
Monumentu Multzoaren parte da.



CALLE Y NUMERO ENDAIA PLAZA 3	PLANO Nº 56
Referencia catastral 7192076	

GRADO DE PROTECCION

BASICO


Casa Endaia
Edificio reconstruido a finales del siglo XIX.
Casa de planta rectangular con tres plantas y miradores en las esquinas, que se señalan en la cubierta.
Los vanos de planta baja son adintelados.
Casa natal del escultor Jorge Oteiza.

KALEA ETA ZENBAKIA ENDAIA PLAZA 3	PLANO ZK. 56
Katastro-erreferentzia: 7192076	

BABES-MAILA


OINARRIZKOA

Endaia etxea.
XIX. mendearen amaieran berreraikitako etxea.
Oinplano laukizuzeneko etxea, hiru solairu ditu, eta behatokiak izkinetan, estalkian ere isla dutenak.
Beheko solairuko baoak dintelduak dira.
Jorge Oteiza eskultorearen jaiotetxea da.



57.- Donejakue Bidea Monumentu Multzoa.Deskribapena.

- * Urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatu izendatu zuten.
Dekretu hori gerora aldatu zen, 6/2022 Dekretuaren bidez.
- * Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legean ezarritakoaren arabera, Donejakue Bidea lege horretan araututako babes bereziko mailan dago (Lehenengo Xedapen Gehigarria).
- * Jarraian azaltzen diren elementuak eta eraikinak Donejakue Bideari atxikita daude, eta ebazpen horietan ezarritako babes-araubidearen mende daude (hurrengo ataletan aipatzen da):
 - Tourseko San Martin ermita eta ospitalea.
 - Nueva Cerámica de Orio (Arocena).
 - Aganduruko galtzada.
 - Txerritxutu-Muniota bidea.
 - San Martin ermitaren igoeran dauden pikotak eta gurutzeak.
- * Plan honetako "V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak" planoan eta hurrengo grafikoan (marra gorri jarraitua) islatzen da Donejakue Bidearen trazadura, Orio zeharkatzen duenean.

Babes-araubidea:

- * 2/2012 Dekretuaren bidez Kultura Ondasun izendatu zuten, Monumentu Multzok kategorian.
Dekretu hori, gerora, 6/2022 Dekretuak aldatu zuen.

- * Babes-araubidea dekretu horietan eta 6/2019 Legean babes bereziko mailan dauden ondasunentzat ezarritakoa da.
- * Kostaldean arloan indarrean dauden legezko xedapenen Donejakue Bidean edo bide-zatietan egitea aurreikusten diren obrek eta jarduketek xedapen horietan adierazitakoa bete beharko dute.

58.- Tourseko San Martin ermita eta ospitalea.

Deskribapena.

Donejakue Bideari lotuta dago, oinplano laukizuzena du, eta bi isurkiko teilatua. Teilatua hegoaldean luzatua du, eta alboko arkupe bat eratzen du.

Portada gotiko xume bat du arkupe horretan, eta erdi-puntuko beste ate bat mendebaldeko fatxadan.

Kanpai-horma geroagokoa da.

Haren kokapena Plan honetako "V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak" planoan ageri da.

Gaur egungo egoera irudian adierazitakoa da.



Babes-araubidea.

Donejakue Bideari atxikitako higiezin izateari lotutako babes-ertaina du, Donejakue Bidea Kultura Ondasun gisa Monumentu Maltzo kategorian kalifikatzeko ebazpenetan ezarritako edukiarekin eta irismenarekin.

59.- Nueva Cerámica de Orio (Arocena).Deskribapena.

- * Orioko sarreran dago, Aginagatik etortzen.
- * Eraikin nagusia (industria-nabea) bidearen trazadurara egokituta dago, eta arkitektura arrazionalistako industria-eraikinen diseinu bereizgarria du.
- * Donejakue Bideari atxikita dago, bide hori Monumentu Maltzo gisa kalifikatzeko ebazpenetan ezarritako moduan eta baldintzetan.
- * Haren kokapena Plan honetako "V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak" planoan ageri da.
- * Fabrikaren/Nabearen egungo egoera irudi hauetan islatutakoa da:



Hegoaldeko - Mendebaldeko fatxadak



Mendebaldeko fatxada



Iparraldeko fatxada



Iparraldeko - Mendebaldeko fatxadak.

Babes-araubidea:

- * Aipatutako 2/2012 eta 6/2022 Dekretuek, Donejakue Bidea Monumentu Multzok kategorian Kultura Ondasun gisa kalifikatzen dutenek ez dute mugatzen Nueva Ceramica de Orio Monumentu Multzorekin eremuak, eta ez dituzte zehazten eta identifikatzen hartan sartutako eraikinak edo elementu espezifikoak.
- * Testuinguru horretan, Nueva Ceramica de Orio (Arocena) fabrika/nabea aipatutako Dekretuetan ezarritako babes ertaineko araubidearen mende dago. Dekretu horretan, 15 metroko babes-ingurunea ezartzen da, ondasunari berari eta inguruko espazioei eragiten diena. Euskal Kultura Ondareari buruzko Legean ezarritakoaren arabera, ingurune hori ondasunaren zati da, eta ondasuna integratzen den paisaia-, hiri- eta arkitektura-testuinguruari eusteko ezartzen da (bigarren izartxoak).
- * Obrak kostaldean arloan indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritako aurreikuspenetara egokituko dira. Xedapen horietan ezarritakoaren arabera

(Hamaikagarren Xedapen Gehigarriaren 2. paragrafoa), kultura-interesekotzat jotako ondasunei, besteak beste, itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren babes-zortasuneko eremuan edo eragin-zortasuneko eremuan daudenei, haien babes-araubideko neurriak aplikatuko zaizkie, Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean jasotakoen aurretik, Hirugarren Xedapen Iragankorraren 3. paragrafoan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

Eraikin horretan erabilerak ezartzeko eta urbanizazio- eta eraikuntza-obren proiektuak baimentzeko "13. Arocena" hirigintza-eremuan, eta, zehazki, kultura-ondasun deklaraturako ingurunean, edo zuzenean edo zeharka eragiten diotenean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena beharko da, dagozkion hirigintza-lizentziak eman aurretik.

60.- Aganduruko galtzada.

Deskribapena.

- * Kostaldeko bidean, Donejakue Bideari atxikitako obra zibila edo galtzada.
- * Haren kokapena Plan honetako "V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak" planoan ageri da.

Babes-araubidea:

- * Araubide hori aipatutako 2/2012 eta 6/2022 Dekretuetan Donejakue Bideari atxikitako obra zibiletarako edo galtzadetarako zehaztutakoa da.

61.- Txerrixutu-Muniota bidea.

Deskribapena.

- * Kostaldeko bidean, Donejakue Bideari atxikitako bide historikoa.
- * Haren kokapena Plan honetako "V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak" planoan ageri da.

Babes-araubidea:

- * Araubide hori aipatutako 2/2012 eta 6/2022 Dekretuetan Donejakue Bideari atxikitako bide historikoetarako zehaztutakoa da.

62.- San Martin ermitaren igoeran dauden pikotak eta gurutzeak.

Deskribapena.

- * Donejakue Bidearen ondoan dauden pikotak eta bidegurutzeak dira, Herrigune Historikoaren eta San Martin ermitaren artean, eta bide horri atxikita daude.
- * Haren kokapena Plan honetako "V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak" planoan ageri da.

Babes-araubidea:

- * Araubide hori aipatutako 2/2012 eta 6/2022 Dekretuetan Donejakue Bideari atxikitako pikota eta bidegurutzeetarako zehaztutakoa da.

64.- Antillako San Joan Bataiatzailearen ermita.

Deskribapena.

- * Abaromendi 11W kalean dago, Antilla hondartzatik gertu, gain txiki batean.
- * Oinplano laukizuzena du, ataripe bat sarreraren atari gisa, eta egitura harlanduzko horma perimetralekoa, egurrezko habeekin. Bi isurkiko estalkia du.
- * Haren kokapena Plan honetako "V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak" planoan ageri da.
- * Ermitaren egungo egoera (kanpoko) irudi honetan ikusten dena da.



Babes-araubidea.

- * Haren babes-araubidea Orioko udal-planeamenduan eta -katalogoan adierazitakoa da.
- * 6/2019 Legearen oinarritzko babes-mailan sartuta dago, eta maila horri dagokion babes-araubidearen mende.
- * A kategoriako zaharberritze kontserbatzailea egiteko baimena ematen da (317/2002 Dekretua).

65.- Errezabal baserria.Deskribapena.

- * Ortzaika inguruan dago.
- * Azken urteotan eraberritze-lan garrantzitsuak egin dira hartan. Zati batean harrizko fatxada mantentzen du. Elementu batzuk gehitu zaizkio (balkoia...), baoak ireki dira edo lehendik zeudenak aldatu dira.
- * Arku behekatuko ate bat du, eta erdi-puntuko arkuko leiho bat beheko solairuan.
- * Haren kokapena eta egungo egoera Plan honetako "V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak" planoan eta irudi honetan ageri dira.

Babes-araubidea.

- * 6/2019 Legearen eta 14/2023 Legearen udal-mailako babesean sartuta dago, eta maila horri dagokion babes-araubidearen mende.
- * Haren babes-araubidea Orioko udal-planeamenduan eta -katalogoan adierazitakoa da.
- * Babesak baserriaren kanpoko inguratzailari edo fatxadei bakarrik eragiten die, gaur egun dagoen bezala.
- * Baimena ematen da fatxada horiek egungo egoeran mantentzeko edo kontserbatzeko zaharberritze-lanak egiteko.

66.- Martin Portu etxea.Deskribapena.

- * San Martin auzoan dago, Herrigune Historikotik San Martin ermitarako sarbidean.
- * Fatxadaren alboko hormak mantentzen ditu, suhesi-hegalekin. Bidera ematen duen fatxadan erdi-puntuko arkua du, giltzarrian anagrama bat duela, 1.438koa. Oinplano laukizuzena du. Zenbait eraberritze-lan egin zaizkio.
- * Haren kokapena eta egungo egoera Plan honetako "V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak" planoan eta irudi honetan ageri dira.



Babes-araubidea.


- * 6/2019 Legearen eta 14/2023 Legearen udal-mailako babesean sartuta dago, eta maila horri dagokion babes-araubidearen mende.
- * Haren babes-araubidea Orioko udal-planeamenduan eta -katalogoan adierazitakoa da.
- * Babesak eraikinaren kanpoko inguratzaileari edo fatxadei bakarrik eragiten die, gaur egun dagoen bezala.
- * Baimena ematen da fatxada horiek egungo egoeran mantentzeko edo kontserbatzeko zaharberritze-lanak egiteko.

67.- Sarikola.Deskribapena.

- * Orio udalerrian, Usurbilekin muga egiten duen bailara txiki batean kokatutako eraikin-multzo bat da.
- * Plan Orokorrean mugatutako "18.3. Sarikola" eremuaren parte da (katalogo hau plan horren atal da).
- * Haren kokapena eta egungo egoera Plan honetako "V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak" planoan eta irudi honetan ageri dira.



- * XV. mendean sortu zen. Eskura dauden datuek eta erreferentziek erakusten dute 1.470. urtearen inguruan bi burdinola zeudela, baita geroago ere. Jatorrian eta urte askotan zehar burdinolen berezko jarduerak egin ziren han, aingurak fabrikatzea barne. Badirudi jarduera-mota hori egiten jarraitu zela XIX. mendearen erdialdera arte. Geroago, lehendik zeuden eraikin eta instalazioez eta beste berri batzuez baliatuta, jarduera hori jutearen fabrikazioak eta lanketak ordezkatu zuen (abarketak, zakuak, oihalak eta abar ere egiten ziren). Gaur egun ez dago inolako jarduerarik.
- * Jarduera horien osagarri, eraikin eta instalazio multzo bat eraiki eta gaitu zen: ekoizpen-nabeak, langileentzako etxebizitzak, eskola, garbitokia eta abar. Eta herrixka txiki bat osatu zen, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez.



Une honetan, hainbat eraikin eta instalazio kontserbatzen dira, iragan ekonomiko, kultural, sozial, urbanistiko eta eraikingintza berezi horren aztarna edo oroimen historiko gisa.

Berezitasun horren ondorioz, adibidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak Udalari eskatu dio (2023ko martxoko txostenaren bidez, Plan Orokor hau egiteko eta izapidetzeko prozesuan emandakoa) eremuko eraikinak eta instalazioak katalogatzeko (baserria, burdinola, ekoizpen-nabeak, langileen etxebizitzak, etab.) eta dagozkien babes-mailetan sartzeko.

Gainera, eremuaren zati jakin bat ustezko zona arkeologikotzat jotzen da (Eusko Jaurlaritzaren 1997-09-17ko Ebazpena).

Gaur egun, oro har, hondatuta eta utzita dago. Salbuespen garrantzitsuenak hurrengo irudietan islatzen diren eraikinak edo instalazioak dira.



Sarikola baserria (bizitegi-erabilerako eraikin nagusia). A eraikina.



Burdinola. B eraikina.



C eraikina.

- * Eraikin horien eta haien ondoriozko multzoaren analisiak, beren kultura-balioen ikuspegitik, honako alderdi hauek nabarmentzeko bidea ematen du:
- Eremuaren aurrekari ekonomikoak, kulturalak, sozialak, hirigintzakoak eta eraikuntzakoak kontuan hartuta, azpimarratu behar da iraganean herrixka bat zegoela, jarduera ekonomikoen, langileen etxebizitzaren eta beste instalazio batzuen (eskola...) baturak osatutakoa.
Iragan horretatik, babestu eta zaindu beharreko eraikin, instalazio eta elementu jakin batzuk kontserbatzen dira une honetan, haien aztarna edo memoria historiko gisa babestu eta zaindu beharrekoak.
 - Baldintza arkitektonikoen eta mantentze-egoeraren ikuspegitik, honako hau adierazi behar da:
 - . A, B eta C eraikinak, Hirigintza Arau Partikular hauetako "2. Eraikuntza-araubidea" grafikoan identifikatutakoak dira multzoan kontserbazio- eta mantentze-egoera onenean dauden egungo osagai adierazgarriak.
Dauden gainerako eraikinak oso hondatuta daude, aurriaren pareko egoeran. Horregatik, ez da egokia horiek zaintzea eta mantentzea.
 - . A, B eta C eraikinek bi baldintzatzaile eta/edo planteamendu arkitektoniko motaren adierazle dira.
Alde batetik, B eraikina instalazio formala eta funtzionalki berezia da, eta, aldi berean, sendoa. Harlanduzko harriz eta arku-formarekin eraikia, bere garaian zegoen burdinolaren parte da. Eraikin horren berezko balio arkitektonikoek, osagarri gisa, honako hauek justifikatzen dituzte: mantentzea eta zaintzea; eraikin edo instalazio exentua edo indibiduala dela nabarmentzeko beharrezkoak diren jarduketak egitea; lehendik dagoen eraikin atxikia eraistea, hain zuzen ere B eraikinaren berezitasuna eta/edo izaera exentua nabarmentzeko; ahal den neurrian, burdinola zaharraren gainerako instalazioak berreskuratzeko beharrezkoak diren jarduketak egitea, burdinola zaharraren zati zirenak eta burdinolaren atzealdean/lurpean daudenak.
Bestetik, A eta C eraikinek jarduera ekonomikoak, langileen etxebizitzak eta beste instalazio batzuk (eskola...) hartzen zituen herrixka bateko eraikinen berezko baldintzatzaileei erantzuten diete. Harlangaitz-hormak, itzukurko fatxadak (harrizkoak diren batzuk izan ezik) eta zurezko egitura dituzten eraikinak dira, une eta aldi desberdinetan eraikiak, eta arkitektura-irtenbide xume eta soilei erantzuten dietenak. Nolanahi ere, eremuaren iragan bereziaren isla dira, eta haren aztarna eta memoria historiko gisa mantendu eta zaindu behar dira. Sortu zirenetik bertatik, bizitegi-erabilerarako eta jarduera ekonomikoetarako erabili ziren.
 - Eraikin horiek zaintzeko, ordea, haien babes-araubidea zehazten denean, beste hauek ere egiteko moduan babestu behar dira: dagozkien erabileretarako erabiltzea; eremuan dauden eta eraikin horietan eragina duten uholde-arriskuei erantzutea; aplikatu beharreko legezko xedapenetatik eratorritako beste baldintzatzaile posible batzuei erantzutea; eraikuntza-parametroak (forma, altuera, solairu-kopurua...) plan honetan ezarritako irizpideetara egokitzea, etab.

Horrek justifikatzen du, era berean, eraikin horietan aipatutako helburu eta baldintzatzaileei erantzuteko beharrezkoak eta/edo justifikatuak diren jarduketak eta obrak baimentzea.

Babes-araubidea.

A.- Eremuko eraikinak kultura-ondarearen arloan indarrean dagoen legerian araututako udal-babesaren mailan sartzen dira (6/2019 Legearen 8.2 artikulua, aurrekoa aldatzen duen 14/2023 Legearen ondoriozko edukiarekin).

Hori dela eta, haren babes-araubidea (irismenak eta afekzioak barne) Orioko udal-planeamenduan eta -katalogoan adierazitakoa da.

B.- Baldintza orokorrak.

- * Eremuaren aurrekari ekonomikoek, kulturek, sozialek, hirigintzakoek eta eraikuntzakoek justifikatzen dute Hirigintza Arau Partikular hauetako "2. Eraikuntza-araubidea" grafikoan identifikatutako A, B eta C eraikinak babestea, iraganean zegoen multzo eta/edo herrixka handiago baten zati eta/edo isla gisa, memoria historiko eta/edo haren aztarna gisa.
- * Babesak berekin dakar eraikin horien egungo tipologia arkitektonikoa/eraikuntzako zaintzea eta mantentzea, hargatik eragotzi gabe hura birdoitzea, ongi egokitzeko Plan honetan aurreikusitako baldintzetara eta aldaketetara eta aplikatu beharreko beste xedapen batzuetan zehaztutakoetara.
- * Baimena ematen da eraikin babestuetako elementuak eta/edo zatiak ordeztzeko, baldin eta horiek zaharberritzeko eta/edo mantentzeko, obra eta jarduketa tekniko eta/edo ekonomiko apartekoak egin behar badira.

C.- A eraikina babesteko baldintzak:

- * Hau babesten da:
 - Eraikinaren kanpoaldeko inguratzailea, fatxadek eta estalkiak osatutakoa.
 - Eraikinaren barruan dauden harlanduzko eta zurezko egiturazko elementuak (arkua, habeak, solibak...), kontserbazio-egoera onean daudenak.Nolanahi ere, barruko eta kanpoko elementu horiek aldatu ahal izango dira, jarraian adierazten den moduan.
- * Baimena ematen da egungo kanpoko parametro arkitektonikoak/eraikuntzakoak aldatzeko (fatxadak eta estalkia), eta, zehazki: fatxadetan eta estalkian bao berriak irekitzeko eta/edo daudenak handitzeko, eraikina arloan indarrean dauden legezko xedapenetan (80/2022 Dekretua, etab.) ezarritako bizigarritasun-baldintzetara egokitzeko beharrezko eta justifikatutako baldintzetan; uholde arriskuei erantzuteko behar diren egokitzapenak egiteko; etab.
- * Baimena ematen da eraikinaren barruan dauden kultura-balioko elementuak aldatzeko, eta, zehazki, elementu horiek eraikinaren barruan birkokatzeko, aipatutako bizigarritasun-baldintzak betetzearekin, uholde-arriskuei erantzutearekin eta/edo behar bezala justifikatutako beste baldintzatzaile batzuekin lotutako arrazoiengatik.

D.- B eraikina babesteko baldintzak:

- * Eraikina bere osotasunean babesten da.

- * Babes hori osatzeko, honako hauetarako beharrezkoak diren jarduketak zehaztu eta gauzatu behar dira:
 - Eraikin edo instalazio exentua edo indibiduala dela nabarmentzekoak.
 - Gaur egun itsututa edo ezkutatuta dauden arkuak eta beste elementu berezi batzuk berreskuratzekoak.
 - Eraikin atxikia eraistekoak (aurri-egoeran dagoen antzinako bizitegi-eraikina).
 - Ahal den neurrian berreskuratzekoak burdinola zaharraren gainerako instalazioak, burdinola zaharraren parte zirenak eta burdinolaren atzealdean/lurpean egon daitezkeenak.

E.- C eraikina babesteko baldintzak:

- * Hauek dira planteatutako helburuak:
 - Egungo eraikin osoa zaharberritzea, oro har hartuta. Izan ere, ez dago mantentze-egoera berean zati guztietan.
 - Eraikuntza osoaren eraikuntza- eta/edo bolumen-parametroak erregularizatzea, altuera, solairu-kopuru eta abarren parametro berberetara egokitzeko. Horrek justifikatzen du gaur egun dauden bolumetria, solairu kopurua eta gehieneko altuera murriztea eta multzorako finkatzea, honela: 2 solairu + teilatupea.
- * Aurreko helburuak eta egungo eraikuntzaren baldintza arkitektoniko eta kulturalak batera kontuan hartzeak honako hauek babestea justifikatzen du:
 - Eraikinaren kanpoko inguratzailea, lehen bi solairuetako fatxadei dagokienez, zehazki.
 - Gainerakoan dauden harrizko fatxadak.

Baimena ematen da eraikinaren elementu eta/edo zati babestu horiek aldatzeko, aurreko helburuei erantzuteaz gain, honetarako: bizigarritasun-baldintzak betetzeko (fatxadako baoak berregokitzea...), uholde-arriskuei erantzuteko, etab.

F.- Eraginpeko eraikin bakoitzean sustatu beharreko eraikuntza-proiektuek, haiei dagozkien aurreikuspen orokorrez gain, honako hauek ere jaso beharko dituzte:

- a) Kasu bakoitzean dauden eraikinaren kultura-balioko elementuak eta/edo zatiak zehazteko eta identifikatzeko azterketa xehatua, aurreko ataletan azaldutako babes-aurreikuspenak kontuan hartuta. Azterlan horretan, eraikinaren elementu eta/edo zati horien egungo kontserbazio- eta mantentze-egoeraren analisia sartuko da.
- b) Alderdi hauen azterketa:
 - * Ea eraikinak 80/2002 Dekretuan ezarritako bizigarritasun-baldintzetara egokitzen diren, hori aplikatzekoa den kasuetan, eta horrek eska ditzakeen jarduketan justifikazioa (fatxadetan baoak irekitzearekin eta/edo daudenak handitzearekin lotutakoak barne),
 - * Zer uholde-arrisku dauden, horien ondoriozko eraginak aipatutako eraikinetan eta ingurunean, eta arrisku horiei erantzuteko egin beharreko jarduketan justifikazioa.
 - * Aurreko jarduketek eraikinen kultura-balioa duten elementu eta/edo zatietan izan dituzten eraginak.

Azterketa hori osatzeko, zehaztuko da eta aztertuko da esku hartzeko zer aukera posible dauden, hala badagokio, modu global, bateragarri eta orekatuan helburu horiei guztiei erantzuteko, barne hartuta eraikuntzaren babesarekin lotutakoak.

- c) Planteatzen diren eraikuntza-proposamenen justifikazioa, testuinguru orokor honetan:
 - * Aurreko azterlan eta analisietatik ateratako gogoetak eta ondorioak.
 - * Proposamen horiek bat datozen kasu bakoitzean planteatutako babes-araubidearekin eta/edo bateragarriak diren araubide horrekin.

G.- Eremuan dauden ustezko zona arkeologikoak babesteko baldintzak:

- a) Baldintza horiek arlo horretan indarrean diren legezko xedapenetan ezarritakoak (6/2019 Legea, etab.).
- b) Hori dela eta, eremu horretan planteatutako eta eremu horietan eragina duten jarduketek baldintza horiekin bat etorri beharko dute.

H.- Eremuan Kostaldean arloan indarrean dauden legezko xedapenen eraginpean dauden zatietan egitea aurreikusten diren obrek eta jarduketek xedapen horietan adierazitakoa bete beharko dute.

2.- Zona arkeologikoak eta ustezko zona arkeologikoak. Babes-araubidea.

Haien zerrenda dokumentu honen 2. koadroan adierazitakoa da. Babes-araubidea eta horiei buruzko beste datu batzuk honako hauek dira:

1.- Zona arkeologikoak

A.- Herrigune Historikoa.

- * 1998-2-12ko Aginduaren bidez, Orioko Herrigune Historikoaren gune arkeologikoa Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean sartu zen, Monumentu Multzokategoriako Kultura Ondasun gisa.
- * Haren mugaketa Plan honetako "V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak" planoan ageri da.
- * Babes-araubidea Agindu horretan eta Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean horrelako ondasunetarako ezarritakoa da.

B.- Igeldoko estazio megalitikoa.

- * 137/2003 Dekretuaren bidez, Monumentu Multzokategoriako Kultura Ondasun Sailkatu izendatu zen.
- * Jarraian aipatzen diren tumuluak barne hartzen ditu. Neolito-Brontze Arokoak dira, eta, besteak beste, honako ezaugarri hauek dituzte:
 - Tontortxiki I:
 - . N – S 11,60 m-ko diametroa eta E – W 10,00 m-ko diametroa duen tumulua.
 - . 0,60 m eta 0,40 m arteko altuera
 - . Erdiko krattera, N – S 4,00 m-ko diametrokoa eta E – W 5 m-ko diametrokoa.
 - . 0,40 m-ko sakonera.
 - Tontortxiki II:
 - . Aurrekotik 225 metrora dago WSWrantz.
 - . 8,50 m-ko diametroa eta 1,00 m eta 0,60 m arteko altuera ditu.
 - . Erdiko krattera, N – S norabidean 3,00 m-ko diametrokoa, eta E – W norabidean 4,60 m-koa.
 - . Sakonera: 0,20 m.
 - Tontortxiki III:
 - . Tontortxiki I-etik 115 m-ra dago.
 - . 8,00 m-ko diametroa du, oso beheratua, ia lurraren arrasean.
 - . Haren trazatik ekialdeko arkuaren muturra bakarrik irteten da, erdian 0,40 metro altxatuz.
 - Tontortxiki IV:
 - . Tontortxiki I-etik 100 m-ra dago, Tontortxiki III-tik 15 m-ra.
 - . 9 metroko diametroa du, oso beheratua.
 - . Koska moduan ebakita dago zentrotik, NW – SSE norabidean.
 - . Mendebaldeko erdia lurraren arrasean dago, eta ekialdeko erdia kontserbatzen du, erdian 0,60 m altxatuta.
- * Haren kokapena Plan honetako "V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak" planoan ageri da.

- * Babes-araubidea Dekretu horretan eta Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean horrelako ondasunetarako ezarritakoa da.

2.- Ustezko zona arkeologikoak.

Dokumentu honen 2. koadroan adierazitako zonak.

- Ustezko zona arkeologiko izendatu ziren 1997-09-17ko Ebazpenaren bidez.
- Haien kokapena Plan honetako “V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak” planoan ageri da.
- Haien babes-araubidea Ebazpen horretan eta 6/2019 Legean horrelako ondasunetarako ezarritakoa da.

- * Aurreko zonei Arkumetegiko Haitzako aire zabaleko aztarnategiari dagokiona gehitu behar zaie. Honako baldintzatzaile hauek ditu:
- Igeldoko mendigunearen iparraldeko isurialdean dago, hegala amaieran hegoaldera irekitzen den egiturazko aldaparen aurrealdean, Lusarbe parajea, Urberde erreka gainean.
- Kokapena Plan honetako “V.1 Eraikin eta elementu katalogatuak” planoan eta grafiko honetan ageri da.



- Goi Paleolitokoa – Historiaurre Hurbila garaikoa da.
 - Industria litikoko materialak (silex, ofita) eta material zeramikoa aurkitu ditu.
 - Aztarnategia oso eraldatuta dago harrobiko obren ondorioz.
 - Posizio deribatuen dagoela dirudi.
 - Kalifikazioaren zain dago.
- * "22. Mare Errota (D)" ustezko zona arkeologikoan aurreikusitako obrak kostaldean arloan indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritako aurreikuspenetara egokituko dira.


Donostia/San Sebastián, 2025.



Izpta.: Santiago Peñalba



Manu Arruabarrena



Mikel Iriondo